

MOZIOA

ALTZA-PASAI ANTZO-GALTZARABORDA TRENBIDE-PROIEKTU ESTRATEGIKOA DELA-ETA

Pasaiako EH BILDU udal taldeko bozeramaileak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Altza- Pasai Antxo- Galtzaraborda trenbide-proiektu estrategikoa dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Baldin eta biziberritzeak ez badu herritarron bizi-kalitatea hobetzen, ez baditu osasun baldintzak hobekitzen, eta %15eko langabeziari aurre egiteko balio ez badu, jarduera sozioekonomikoa behar bezala bultzatzen ez duelako, horri ezin zaio biziberritzea esan. Ildo beretik, nola biziberrituko da Oarsoaldea Gaintxurizketa eta Herrera biltegiz beteta eta gure eskualdea logistikara kondentaturik; izan ere, horietxek baitira lanpostu gutxien sortzen dituzten sektore ekonomikoak.

Eusko Jaurlaritzak, azken urteetan, eskualdeak beharrezkoa duen biziberritzeari lagundu ordez, Pasaiarekin zituen konpromisoak bertan behera utzi ditu, zehazki: Pasai Antxoko Luzuriagako 2. fasea, Donibaneko saneamendua edota topoaren lurperatzea.

Azken honen kasuan, Euskotrenen Altzako geltoki berria, zorionez, hasi da martxan, baina ez da nahi genukeen berri ona izango milaka herritarrentzat, "cul de sac" geltoki gisa abian jarriko baita, orain arte behintzat Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda trenbide-zatiaren obra egiteri uko egin baitio eskuduntza duen erakundeak. Zer esanik ez, Pasaiako bizilagunentzat gure etxeen artetik igarotzen den trenbide-bidezubi batekin bizi behar baitugu egunez egun; horrek dakartzan eragozpen eta kalteekin, zarata, bibrazio, oztopo arkitektoniko, segurtasun eta, oro har, bizi-kalitatearen ikuspuntutik.

Izan ere, 70 milioi inguruko aurrekontua duen obra-proiektua idatzita badago ere, egun ez du Eusko Jaurlaritzaren finantziazio-konpromisorik. Are gehiago, azkenean Eusko Jaurlaritzak 200 milioi euro Donostia erdiguneko metro-igarobidea egiteko erabiltzen baditu, proiektu hori urteetarako hipotekatuta geratuko da. Arrisku hau ikusita, ezinbestekoa da aldarrikatzea Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda trenbidea, tren-igarobidearen aldean, askoz premia eta lehentasun handiagokoa dela. Logika hutsa da eta arrazoiak bistakoak dira:

- **Bizitza-kalitatea:** Badira 100 urte Antxoko biztanleek herria bitan banatzen duen bidezubi hau jasaten dutela, horrek dakartzan kutsadura eta arriskuekin. Pasai Antxoko zatia istripu ugariko bide-zati bat da, eta lehen mailako arkitektura-oztopo bat; zarata, iluntasuna eta segurtasun-falta sortzen duena herrian. Lurperatze horrek antxotarren eta pasaitarren bizi-kalitate kaxkarra hobetuko du.
 - **Arrazoi geometrikoak:** cul-de-sac izan daitekeena saihestea, kontuan izanda, gainera, erdiguneko metro-igarobidearekin ez bezala, inongo

desbideratzerik gabe lor daitekeela. Alegia, altzatarrek ekialderantz joan nahi badute, Herrerako geltokian ontzi-aldaketa egin beharra ekidingo genuke.

- **Metrizazioa:** Altzako geltoki berriarekin, altzatarrek 15 minutuz behin izan ahalko dituzte zerbitzu-maiztasunak Donostia eta Altzaren artean. Pasaia aldera jarraitzeko transbordo egin beharko dute Herreran, 7-8 minutuko itxaron aldiarekin. Burdinbide-adar berria eraikitzen bada, ordea, Altzako geltokia trenbide bikoitzeko igarobide bilakatuko da, eta oraingo Herrerako maiztasunak izatea ahalbidetuko du.
 - **Finantzazio arrazoiak:** kostua metro-igarobidearena baino askoz txikiagoa izango litzateke; 70 milioi euro 200 milioi euroren aldean.
 - **Irisgarritasun globala:** EuskoTrenen sarea hegoalderantz mugitzean eta Renfeko geltokitik urruntzean, zabaldu egiten da garraiobide publikoek, osotasunean, egoki artatutako hiri eremua (GPBI Indizea).
-

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio hau aurkezten du:

MOZIOA

1.- Pasaiaiko Udalaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari eta EuskalTrenbideSareari lehenetsi dezala Donostialderako trenbide-azpiegituren artean, premiazkoa eta estrategikoa den Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda trenbidearen eraikuntza, beste edozein proiekturen aurretik. Ildo horretan ezar dezala 2017rako hainbat urtetarako aurrekontua, eta has dezala obra-lizitaziorako oinarrien idazketa.

2.- Pasaiaiko Udalaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari abia dezala Pasai Antxoko tren-zubibidea eraisteko azterketa tekniko eta proiektuaren idazketa, pasaitarrok dagokien bizi-kalitate ona eta hirigune atsegina izan ditzagun, eta trenbideak oztopo arkitektoniko izateari utz diezaion. Ildo berean, Pasaiaiko Udalarekin elkarlanean eta herritarren partaidetzarekin, har dezala konpromisoa hura eraitsitakoan geldituko den hirigunea birgaitzeko proiektu bat aurrera eramateko.

3.- Pasaiaiko Udalaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari sina dezala lehenbailehen hitzarmen marko bat Eusko Jaurlaritzarekin Altza- Pasai Antxo-Galtzaraborda trenbidea bien artean finantzatzeko.

Pasaian, 2016ko Urriaren 6an

Miguel Mari Torrea Etxabe

EH Bildu udal taldeko bozeramailea